

1) ...Giza Eskubideak eta Askatasunak errespetatuz eraikitako proiektuan

“Euskadi konprometituagoa”

1.1) Pertsona ororen Giza Eskubideen errespetuarekin konprometitua.

1.2) Justizia Administrazio eraginkorrarekin konprometitua.

1.3) Jendearen segurtasunarekin konprometitua.

Gure printzipioak: zure konfiantza

Giza eskubideekin eta askatasunekin konprometituagoa dagoen Euskadi eraikitzeko, EAJ-PNV eta EA Koaliziokook honako jarduera-printzipio hauek aldarrikatu ditugu:

- Pertsona ororen **bizitzeko** eta askatasunerako **eskubidearen defentsa**, gizarte-elkarbizitzaren funtsezko printzipio gisa.

- **Edozein motatako indarkeria**, intolerantzia eta terrorismoa **jasan duten eta jasaten duten pertsona guztiekiko elkartasun aktiboa**, eta horiek aintzat hartzea etika, politika, gizarte eta material arloan.

- **Pertsona ororentzako eskubide zibilen eta politikoen defentsa**, askatasunez bizi daitezten eta erabaki dezaten. Indarkeriak mehatxatuta ez bizitzeko askatasuna, ideia-askatasuna, aukeratzeko askatasuna, eta proiektu guztiak bide baketsu eta demokratikoen bitartez defendatzeko askatasuna.

- **Justizia**, giza eskubideak eta askatasunak baliatzeko eta defendatzeko berme gisa. Kalitatezko justizia, modernoa, gertukoa, eraginkorra, independentea, objektiboa eta ez baztertzailea.
- Jendearen **segurtasuna**, zuzenbide-estatuaren neurri eta berme guztiak erabiliz.
- **Bakea eta tolerantzia**, indarkeriarik eza eta elkarrizketa, elkarbizitzarako eta gatazkak konpontzeko tresna gisa.

Gure konpromisoak: zure etorkizuna

1.1.- Pertsona guztien giza eskubide guztien errespetua.

Horretarako, honako konpromiso hauek hartu ditugu:

1. **Giza Eskubideen eta Askatasunen Behatokia** sortzea, pertsona ororen giza eskubideen defentsa zaintzeaz arduratuko den organo independente gisa.
2. Terrorismoaren biktimen egoera hobetzeko eta kaltetuei kaltea ordaintzeko, aintzat hartzeko, humanizatzeko eta gizarteratzeko neurri integralak ezartzea, dagokion legediaren bitartez.
3. Terrorismoaren biktimen egoera hobetzeko osoko neurriak ezartzea.
4. Espetxe-politika berrikustea humanitarioagoa izan dadin, eta askatasuna kendu zaion oro bere familia-ingurunetik gertu dauden espetxeetara hurbiltzeko.
5. Gurean milaka pertsonak jasaten duten jazarpen-indarkeriaren aurkako Plana aplikatzea, pertsona horiek bizitzeko, askatasunerako, berdintasunerako eta aniztasunerako duten eskubidea bermatuz.
6. Nazio Batuen Goi Komisarioarekin Lankidetzak Akordioa izenpetzea Giza Eskubideen arloan diharduten euskal profesional eta teknikarientzako prestakuntza eta gaikuntza programak garatzeko.
7. Sentsibilizazio-kanpainak egitea, bai giza eskubideen urraketen inguruan, bai urraketa horien prebentziorako, sektore urrakorrenei arreta berezia eskainita.

8. Giza eskubideen inguruko hezkuntza eta prestakuntza programak bultzatzea, lehen nahiz bigarren hezkuntzan.
9. Memoria historikoa berreskuratzeko programa (“Memoria, Duintasuna eta Justizia”) onartzea; programa horretan gerrako biktimek pairatutako sufrikarioa onartzen da, desagertutakoen inguruan ikerketak egiten dira, eta zenbaitetan ahaztuta geratzen den memoria hori ikertzea eta ezagutaraztea sustatzen da.
10. Giza eskubideen eremuan aritzen diren elkarteei eta entitateei zuzendutako baliabideak gehitzea.
11. Atxilotuen asistentzia eta arreta protokoloak hobetzea, batez ere inkomunikazio-erregimenean daudenen protokoloak. Oro har, inkomunikazioa ez da hiru egun baino gehiago aplikatuko, eta Torturaren Prebentzioko Batzordeak ezarritako neurriak beteko dira.
12. Genero-indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituztenen asistentziarako eta arretarako baliabideak gehitzea.
13. Gizarte eta ekonomia arloko laguntzak sendotzea, espetxeetan askatasunik gabe daudenei asistentzia humanitaria, soziala, sanitarioa eta juridikoa ematearren.

1.2.- Askatasun zibilak eta politikoak eta Bakearen balioak defendatzea.

Konpromiso hauek hartu ditugu:

1. Politika, ekonomia eta gizarte arloko eragile guztiekin lankidetzan, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko prozesuaren aitzindari izatea.
- 2.- Mugarik gabeko eta inor baztertu gabeko elkarrizketarako bidea ezartzea, talde politikoen euren ideiak eta proiektuak bide baketsu eta demokratikoen bitartez eta berdintasuneko baldintzetan defendatzeko aukera izango duten esparruan.
- 3.- Autogobernua sakontzea, honako balio hauetan oinarrituz: askatasuna, justizia, berdintasuna, elkartasuna eta aniztasun politikoa.
- 4.- Hezkuntza-eremuan programa eta proiektu espezifikoak abiaraztea, giza balioetan eta bakearen eta tolerantziaren kulturaren hezteko.
- 5.- Bakea izateko nazioarteko giza eskubidea aitortu dadin bultzatzea, Bakea izateko Giza Eskubidearen Nazioarteko Kongresuan ateratako ondorioei jarraiki.
6. Gure konpromiso etikoa, hain zuzen ere pertsona oroaren eskubideak eta askatasunak errespetatzeko dugun konpromisoa ardatzat duten ekimenak abian jartzea.
7. Adierazpen, manifestazio eta politikan parte hartzeko oinarritzko eskubide eta askatasunak baliatzeko aukera bermatzea.

1.3.- Justizia Administrazio eraginkorra.

Konpromiso hauek hartu ditugu:

1. Bulego Judiziala Antolatzeko Plana lantzea eta onartzea; Plan horrekin, eraginkortasunaren eta herritarrari behar bezala erantzuteko irizpideen arabera definituko da Bulegoa, eginkizunen espezializazioan eta multzokatzean, eta zerbitzuaren arrazionalizazioan oinarrituta, ebaluazioko eta zuzendaritzako elementuak txertatuta.
2. Antolamendu eta kudeaketa sistema modernoan bitartez antolatzea bulego judizialak, izapidetze eta betearazte zerbitzu erkideen bulegoen kopurua gehituz.
3. Justizia Administrazioaren zerbitzura lanean ari diren Langileen Lanpostuen zerrendak onartzea.
4. Kudeatzaileen, tramitatzzaileen eta laguntza judizialeko langileen hizkuntza-profilak planifikatzea eta esleitzea, EAEko Administrazio Orokorraren hizkuntza-plangintzako irizpideen arabera.
5. Azpeitiko Justizia Jauregia eraikitzea eta Donostiako Justizia Jauregi zaharra zein Bergarako Justizia Jauregia birgaitzea, bai eta Getxoko Justizia Jauregia handitzea ere.
6. Jendearentzako Informazio Bulegoak, Familia Epategiak eta Erregistro Zibilak hobetzeko neurriak ezartzea.
7. Euskal gazteak karrera judizialean, fiskalean, idazkari judizialen karreraren eta auzitegietako medikuen karreraren prestatzea bultzatzeko laguntza ekonomikoak gehitzea.
8. Bulego judizialean lan egiten dutenen prestakuntza bultzatzea.

9. Landako (Araba) Adingabeen Arretarako Zentroa bukatzea, eta Ortuellakoa (Bizkaia) zein Aramaiokoa (Araba) birgaitzea, Gazte Justizia Plana aplikatuz.
10. Operadore juridiko guztien partaidetzaz, lankidetzaz-organoa bat sortzea, Euskadiko Justizia Administrazioari buruzko topagune eta hausnarketarako eta partaidetzarako gune izan dadin.
11. Bitartekotza-zerbitzuak sortzea, batez ere zigor arloan, gatazkak sistema alternatiboen bidez konpontzeko aukera erraztearren.
12. Doako justiziako txandetako abokatuen prestakuntza sendotzea, erantzuteko epeak laburtzeko.
13. Informatika eta telekomunikazio hirugarren Plana aplikatzea, justizia.net atariak herritarrentzako eta justizia-arloko profesionalentzako informazio-atari gisa dituen aplikazioak sendotuz, bai eta justizia-antolamenduaren arrazionaltasuna eta produktibitatea ardatzat duen justizia.bat atariarenak ere.
14. Justizia Administrazioan hizkuntza-normalizazioko neurriak ezartzea; neurri horietan, besteak beste, honako hauek barne hartuko dira: lanbide-heziketa, bulego judizialean euskararen erabilera bultzatzea, sentsibilizazio-programak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin, Justizia Ministerioarekin eta erakunde eskudunekin euskalduntzeko hitzarmenak, abokatuek euskara ikasteko eta erabiltzeko proiektuak bultzatzea, dokumentuak normalizatzea eta lege-testuak itzultzea.
15. Espetxeen transferentzia eskatzen jarraitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko zigorrak betearazteko ereduaren gaineko eztabaida proposatzea, espetxean daudenen duintasuna eta giza eskubideak bermatzearen, eta zigorraren gizarteratze-helburua betetzearen.

1.4.- Jendearen segurtasunarekin dugun konpromisoa.

Konpromiso hauek hartu ditugu:

1. Ertzaintzaren giza eta material baliabideak gehitzea 8.000 agente izatea lortu arte.
2. Polizia-etxe guztietan ISO 9002 Kalitate Ziurtagiria ezartzen jarraitzea.
3. Ertzaintzaren berehala erantzuteko gaitasuna areagotzea, nola delituen aurrean hala katastrofe naturalean zein era guztietako larrialdien kasuan, gure eraginkortasun-mailari eusteari begira.
4. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko poliziaren jardunari buruzko protokoloak berrikustea, babesa azkarrago eta eraginkorrago emateko.
5. Ertzaintzako kideak polizia-jardunean ari direla babesteko estandarrari eustea.
6. Honako gai hauei buruzko prestakuntza berezia eskaintzea Ertzaintzari: emakumeen aurkako indarkeria, delinkuentzia informatikoa eta teknologikoa, eta antolaturiko kriminalitatea.
7. Ertzaintzak Schengen-eko Akordioan eta Europako gainerako polizia-foroetan parte hartzeko beharraren alde egitea.
8. Ertzaintzaren eta beste herrialdeetako polizien arteko hitzarmenak eta lankidetzak-akordioak izenpetzea, horien artean informazioa

truka dezaten eta lan-metodoen zein esperientzien berri elkarri eman diezaioten.

9. Herritarren prebentzio eta segurtasun maila hobetzea gehienezko delitu-tasa 50 delitu 1.000 biztanleko izatea lortu arte, eta hartara, gure delitu-tasa Espainiakoa baino 40 puntu baxuagoa izatea lortuko dugu.
10. Bide-zirkulazioa hobetzea eta bide-istripuak murriztea, arrazoi hori dela-eta hildakoen kopurua % 20 murriztea lortu arte.
11. Trafikoa Koordinatzeko Zentroa erabiltzea, trafikoaren prebentzio-kudeaketa eraginkorra lortzeko eta milioi bat biztanleko izaten diren istripu hilgarrien kopurua murriztea lortzeko, indizerik baxuenak dituzten Europako sei herrialdeen mailara murriztea lortzeko, hain zuzen ere.
12. Denbora errealean eta unean-unean errepidearen eta trafikoaren egoeraren berri ematen duten panelak eta beste hainbat seinalizazio-mota jartzea bide nagusietan.